

Hizkuntza praktiketarik harago.
Bertso-eskola euskarazko gazte
identitateak eraikitzeko gune.

Miren Artetxe Sarasola


miren.artetxe@ehu.eus



IKERKETA TALDEA
GRUPO DE INVESTIGACIÓN
RESEARCH GROUP

IEHko gazteak

- **16-24 urte bitartean %17,6 dira elebidun.**
- %49,6 frantsesez hobeki moldatzen da euskaraz baino.
- **%14k hitz egiten du maizenik euskaraz.**



Jarduera Komunitatea

(Eckert eta McConnell-Ginet 1992a, 1992b, 1995)

A photograph of a group of young people in a casual setting. In the foreground, a young woman with dark hair, wearing a blue and white striped shirt, is leaning forward and laughing heartily, her hand resting on her chin. Next to her, a young man with dark hair, wearing a black t-shirt, is looking down with a serious expression, his hand near his chin. To the right, a young woman with brown hair, wearing a black and white striped shirt, is smiling and looking towards the camera. In the background, another young man in an orange jacket is visible, also smiling. The overall atmosphere is one of joy and community.

Euskarazko Jarduera Komunitatea

Konfiantza eta enpatia




Jokin: Adibidez ba... deia besteen aintzinean ausartzen gira kantatzen, beraz, zerbait egiten du ere, *fin* segurtasun bat sortzen da denen artean eta *voilà* ikusten ditugu beste batzuk kakan, beste batzuk bertso onak botatzen, *fin* holako gauza desberdinak, eta ez dakit... Ene ustez da hori, sustut, segurtamen bat sortzen duela, *fin*, ari gira kantuz eee... prest gira zernahi botatzeko, *fin*, kaka bat edo bertso on bat edo ez dakit zer eta horien aintzinean eta badakigu, *fin*, ez dela deus, *fin*, berdin dila, botatzen ahal dugula nahi duguna.



Taking
the floor

Nekane: A, be, ni biziki lotsatia naiz, jendearen aintzinean mintzatu behar dudalarik, jendearen aintzinean nere ideiak erakutsi behar ditudalarik, biziki... Bo, orain gutxiago, baina, lehen biziki beldur nuen [...]. Geroztik, zinez aldatu naiz eta ausartu naiz eta nere lagunak, [...] erran didate "*mais*, plazer egiten du, zenta lehen egoiten zinen gure ondoan elkarrizketak entzuten baina ez zinuen parte hartzen" eta ez nituen nere iritziak emaiten eta senditzen nuena ez nuen erraiten eta hor, be zinez bertsolaritzari esker edo bertso-udalekuei esker ikasi dut egiten [...]. Bai, hala ere bertsolaritzaren bidez azkenean lortu dut pixka bat afirmatzen gehiago eta, eta erakusten pentsatzen nuena eta nintzena eta ikusi nuelarik erantzun positiboa pentsatu dut, *mais*, batzuek ez dute ongi atxemanen, berdin zait.

Thinking
critically



Maiana: Badakit e... Ez dela heldutasun berdina. Ezin duzula berdina hitz egin. Nik nere lizeoko lagunekin, hauekin... *fin...* ez... *fin...* Ez naiz jarriko banku batean hitz egiten, e... *Voilà*, ez dakit zer, nola senditzen dugun Gazte Dinamika eta nola senditzen dugun euskara ta Euskal Herria, ta... ez. *Fin*, bestea izanen da pixkat, be, '*Oais*, ikusi duzu La Nouvelle Star atzo' [telebista emankizun bat] edo, *fin...* [...] Zenta, be, erraten ginuena, be, zure inguruko laguntasunak egiten dizu, azkenean, konbertsazio helduagoak ukatea eta konbertsazio horietan gauza ainitz gehiago ikustea.

Ekintzailetza



Amaia: Ene ustez bertso eskolan badugu indar, *fin*, bai badugu indar bat antolatzeko, badugu indar bat eztabaidatzeko, badugu indar bat, be, ongi pasatzeko holako momentuetan eta ene ustez horri esker gero lizeoan ere enbeia dugu, irratian sartzea, enbeia dugu sartzea, ez dakit... Enbeia dugu eta gai gira, gainerat, eta gai gira eramaiteko aintzinerat [...]. *En fait*, biek ene ustez eee... Beste elkarteetan izaiteak eta egin du bertso-eskolan ukan dugun... Be hori, antolatzeko gaitasuna, eta, bainan, nere ustez, batez ere bertso-eskolan ainitz gauza ikasi ditugu, ainitz gauzetan...

Estiloa

Eneka: Eta bai bada giro hori,
badakit bakarrik bertso-eskolan
atxemaiten dutala, adibidez. Eta,
du coup, lagun horiek, bertso-
eskolakoak, automatikoki giro horri
lotuko ditut, eta, *du coup*,
desberdinak izanen dira beste
lagun taldetik, hori badakit.

Laburbilduz

- Talde ezaugarriak, talde identitate positiboa.
 - Konfiantza giroa
 - Hitza hartzea/lotsa galtzea
 - Hausnarketarako joera
 - Ekintzailetasuna
- Norbere gazte identitatea garatzeko plataforma.
- Hizkuntza, estiloaren parte.
- **Izan liteke haustura jarraipenerako baldintza?**

